



VILLE DE BAYONNE

2023ko ekainaren 22an

## PRENTSA OHARRA

### **Euskara ezinbestekoa Itzuli Handian** **Baionako Hiriak elebitasunaren aldeko hitzarmen bat sinatu du** **ASO delakoarekin**

**2023ko Frantziako Itzuliaren 3. etaparen heltzearen harira, Jean-René Etchegaray, Baionako auzapez eta Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakariak eta Pierre-Yves Thouault, *Amaury Sport Organisation* delakoan Txirrindularitzaren zuzendariorde denak, partzuergo hitzarmen bat sinatu dute, Antton Curutcharry Euskal Erakunde Publikoaren lehendakariaren aitzinean, frantsesa-euskara elebitasuna balioan eman eta gauzatzeko. Hitzarmen horren xedea euskara nazioarteko hedapena duen kirol ekitaldi horren bitartez balioan eman, hedatu eta ezagutzera ematea da. Euskara eta elebitasuna ahoz emanen dira ekitaldian zehar eta helmuga inguruetako, Tourraren herrixkaren eta ibilbidearen luzerako informazio eta komunikazio euskarrietan. Hala egingen duten lehen aldia dute antolatzaileek eta funtsezkoa zitzaien hori Baionako Hiriari eta beraren partzuerrei**

2023ko Frantziako Itzuliaren Abiatze Nagusia Euskal Herrian egitea Iñigo Urkullu Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoaren lehendakari bien nahi sendo baten ondorioa da, herritar ekitaldi handi hori elkarrekin antolatu nahi baitzuten mugazgandiko Euskal Herria ezagutzera emateko eta dituen baloreak mugazgain ager zitezen. 2023ko uztailaren lehenetik hirura bitartean egingen da Bilbo eta Baiona artean, Gasteiz, Donostia eta Amorebieta-Etxano ere bisitatuz. Frantziako Itzulia erakusleho ezin hobea da, mundura zabalduriko ate bat, aldi berean 180tik gora herrialde bilduz. Aukera paregabea zaio Baionari eta, oro har, Euskal Herriari bere historia eta kultura, bai eta euskara ere mugazgandi ezagutzera emateko.

Baionako Hiria 2006az geroztik da euskararen aldeko hizkuntza politika egiten ari. 2022az geroztik, elkar aditze urraspide bati ekin dio euskararen alde daraman hizkuntza politika berritzeko asmoz. Tourraren euskal Abiatze Nagusiaren azken etaparen antolatzaileetarik delarik, nazioarteko hedadura duen ekitaldi hori euskara balioan ematen, hedatzen eta ezagutzera ematen lagun dezan nahi du. Euskara euskal lurraldeen historiaren, kulturaren eta nortasunaren parte da, Bidasoaren bi aldeetan; mendeetan zehar parte hartu du lurralde horien berezitasuna eta erakargarritasuna egiten; mugazgandiko lankidetza bizi baten bideratzaile eta gaia da.

ASO Frantziako Itzuliaren erakunde antolatzailea 2006az geroztik ari da Frantzia aldeko Euskal Herriko herriein eta elkargoekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin Frantziako Itzuliaren Euskal Herriko etapetan frantses-euskara elebitasuna sartzen (Kanbo, Senpere, Ezpeleta), bereziki euskara frantsesaren ondoan erabiltzen etapa horietako komunikazio eta seinaletika euskarrietan, bai eta animazio elebidunak egiten mintzalari euskaldunekin.

Euskal Hirigune Elkargoak, 2017an sortu zenetik bertatik hartu zuen bere gain euskararen aldeko hizkuntza politikarako eskumena, herrien multzoko eskumenen bitartez. 2018an, ofizialki onartu zituen euskara eta gaskoia bere lurraldeko hizkuntza gisa frantsesaren ondoan, eta Euskararen Hirigune Elkargoaren hizkuntza politikarako proiektu bat erabaki zuen, «Euskara Jalgi hadi plazara» izenekoa, «euskara euskal plaza ororan sartzeko» xedearekin. EEP ororen intereseko talde bat da, honako hauek osaturik: Estatuak, Akitania Berriko Eskualdeak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak eta Euskal Hirigune Elkargoak, eta adosturiko euskararen aldeko, politika publikoa zehaztu eta gauzatzen du euskara eguneroko bizitzan agertu eta erabili dadin. 2006 eta 2017an jadanik lagundu zuen Euskararen Erakunde Publikoak ASO delakoa Frantziako Itzuliak Euskal Herrian egin zituen etapetan.

Elkarrekin, euskal erakundeak ASO delakoarekin elkarlanean, 2023ko uztailaren 3an Frantziako Itzuliaren Baionako helmugara heltzean komunikazio, seinaleketika eta animazio elebiduna egitera engaiatzen dira. Besteak beste, seinaleketika eta komunikazio elebiduna eginen da Tourraren hirugarren etapa Baionara heltzean (helmuga arkuak, podiuma, LED taulak, ibilgailua, jendeentzako informazioa ...) bai eta Tourraren Herrixkan ere, helmugako animazioetan euskaldun den mintzalari batekin. Baionako Hiria ASO delakoa engaiamendu horiek gauzatzen laguntzera engaiatzen da.

Baionako Hiriaren prentsa harremanak - 05 59 46 63 01 - [presse@bayonne.fr](mailto:presse@bayonne.fr)